

## Izua bizilege



### **Izua**

Jatorrizko izenburua: *Panique*

Egilea: Lydia Flem

Itzultzailea: Joxan Elozegi

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Alberdania

### KARLOS DEL OLMO

*Zerberri* bildumako liburuxka hau autolaguntza eskuliburu arinaren eta eleberriaren arteko lurralde jaberik gabeko zabal eta lauso horretan sailkatu behar genuke, liburuak klasifikatzea benetan beharrezko balitz —egun gero eta ariketa alferrekoago gertatzen denez gero, ez bada unibertsitateko irakasleen jolasgarri ia hutsa—.

Liburua irakurri ahala, Alfred Hitchcock-en *Vertigo*, *Psycho* eta antzeko pelikulak datozkigu gogora, alegia, pertsonaren baitan dena delako gertaera psikologikoak eragiten dituen portamen aldaketak azaldu eta ulertarazteko gogoia. Eta liburuak berak azal atzealdean dioen moduan, horrelakorik jasaten ez duenak nekez uler dezake zer den egun guztian, ia etengabe izu uholdearen menpean gertatzea, itsasoaren erdian eguraldirik txarrena dagoela euskarri mengel bati oratuta doan naufragoa izatea. Liburuaren egiturak berak ia hogeita lau orduko bizi ibilbide lazgarriaren hitzorduak jartzen dizkigu begi aurrean, zenbakizko ordu horiek dira-eta kapituluaren izenburuak eta amaiera bera. Erlojuaren aurkako bizi bidaiaren mugarri eskuragaitzak.

Izu erasoak jasaten dituzten gaixoak farmakologiaren laguntza eta terapia saioak behar izaten ditu normal antzean bizi ahal izateko. Liburuxka honek, aldeztu, terapiaren osagaitxo bat izan nahi du, edo hala iruditu lekiguke kontakizunaren bakarrizketa erakargarri horretatik askatzea lortuko bagenu, eta hori nekez gertatzen da pasarte batzuetan, literaturak gaina hartzen baitu, guztiz gatibatuta utzi ohi gaituztelako pertsonaren zokorik ilunenek.

Irakurleari laguntza ala oztopo gertatzen zaio idazlea psikoanalista ere badela jakitea? Balioren bat eranstean dio ala punturen batez erantzten? Zer bilatzen duen irakurleak, jakina. Berez literaturara emanda ez dagoen kutxa moduko sail batean plazaratzeak, zelan edo hala, hartzailearen aurreiritzia sendotuko du, onerako ala txarrerako, prefosta.

Liburu hau gaztelaniaz ere plazaratu du Alberdaniak, baina bi bertsioak ez dira itzultzaile berberaren eskutik etorri. Honako hau Joxan Elozegik paratu du, nahiz eta argitaletxe honek

haren izenik azalean adierazten ez duen, ekandu omen duenez gero. Euskarazko bertsiolari erreparatuta, puntuazio erabilera harrigarri batzuek eta zenbait egitura gramatikalek birritan irakurtzera behartzen dute irakurlea, eta egilearen beraren aukera estilistikoak ala itzultzailearen aukera izan ote diren jakiteke geratuko bide da.

Bizitzako gauzarik arruntenek ere izua eragiten dioten lagunaren azalean barneratzea erraz gertatzen da orriotatik aurrera ahala, eta ez da gutxi halako orri kopuru urri bat mintzagai dela. Eta arnasa askeago, erosoago, beteago hartzen dugu azken orrietan dena delako protagonistak barealdia erdiesten duenean.

Non eta noiz zeharkatzen du pertsonak, guztiarekin ere, beldur arruntaren eta izu patologikoaren arteko marra argala? Epiketok esan zuen moduan, beldurraren jatorria etorkizuna da, tristuraren jatorria, orainaldia. Baina zer esan orainaldia etengabe etorkizun ezagungabea bihurtzen zaion pertsonaz? Adituen arabera, sentrazioak eta emozioak ez dira nahastu behar: sentimenduak iraunkorrak eta ez oso biziak izan ohi dira, sentrazioak, ordea, laburrak baino ezinago biziak. Bost axola zaizkio, halere, horrelako definizioak, gutxien espero duenean, toki itxian zein zabalean, oinez zein hegazkinez edo barkuz doalarik, betetan izuaren bizi heriotza bortitzaren erasanak jasan behar dituenari. Euskaraz ez, baina frantsesez, ingelesez eta gaztelaniaz, besteak beste, egoera psikologiko hori azaltzeko erabiltzen duten berbaren jatorrian Pan jainkoaren txilioek eta gauetzko agerpenek hilkorretan sortzen zuten sentrazio beldurrezkoaren oihartzuna ei dago.

Nolanahi ere den, eguneroko odisea moduko horretan, protagonistak dioenez, aldentzea ez ei da hiltzea.